

Online Prestakuntza Unitatearen irakaskuntza plana:

FINANTZA ETIKOAK

Pertsonengan balioa jartzeko benetako aukera

Prestakuntza proposamen bat Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) graduko eta graduondoko ikasleentzat.

- Online prestakuntzaren iraupena: 6 aste
- Lanaldia: 37,5 ordu (hautazko 1,5 ECTS kredituren baliokidea)
- Ikastaroaren hizkuntza: gaztelania eta euskara.
- Irakasle taldea: UPV/EHUko Iraunkortasuneko Zuzendaritza, FIARE Banka Etikoko langileak eta Finantza Etikoen Fundazioa.

1. Aurkezpena

XX. mendearen hasieran, mendebaldeko ekonomiak eta, batik bat, Estatu Batuetakoak krisialdi handi bat izan zuen, 1929. urtean. Krisi hura arautu gabeko merkatu ekonomia baten eboluzioaren emaitza saihestezina izan zen, eta agerian utzi zuen merkatuaren mekanismoak ez direla nahikoak, garai hartako korrante liberal nagusiek defendatzen zutenaren kontra. Gero, XX. mende amaieran, finantza krisiak maizago gertatu eta sakonagoak izan ziren. Krisi horien adierazpen gorena 2008. urtean hasi zen: krisi izugarri handi horrek kinka larrian jarri zuen munduko ekonomia, eta finantzen eta politikaren arloko agintariek inoiz ez bezalako erreskate neurriak hartu behar izan zituzten, banku eta finantza entitate askoren porrota saihesteko.

Testuinguru horri erantzuteko eta finantzen zeregina ulertzeko beste modu batzuk bilatzeko, herritarren ekimen kolektiboak sortzen hasi ziren, eta ekimen horietatik printzipio, helburu, balio eta portaera berriak proposatu dira, diruak eta finantza sistemak gaur egungo gizarteetan duten zeregina ulertzeko moduari dagokionez. Horrela sortu ziren banka eta finantza etikoak, eta azken aldian gero eta protagonismo handiagoa hartzen ari dira.

Banka eta finantza etikoen ikuspegitik, irabazi ekonomikoak estuki lotuta daude gizarte eta ingurumen irabaziei. Banku etiko batek irabazi ekonomikoak bakarrik kontsideratuko balitu, banku huts bat izango litzateke, eta soilik ingurumen eta gizarte irabaziei erreparatuko balie, banku bat izateari utziko lioke. Horrela, banka etikoak gizarte, ingurumen, kultura, hezkuntza... ikuspegi batetik gizartearentzat balio erantsia duten proiektuetan soilik inbertitzen du, eta bezeroei beren aurrezkiak non inbertitzen dituzten jakiteko aukera ematen die.

“Finantza Etikoak: balioak pertsonengan jartzeko aukera erreal bat” online ikastaroak finantza etikoen aukera ezagutarazi nahi die UPV/EHUko ikasleei. Aukera horrek gizarte solidarioago eta bidezkoago bat eraikitzeke ekarpen bat egin nahi du, finantzen arlotik, eta jarduera ekonomikoaren erdigunean bizitza jartzen du, ez errentagarritasuna eta irabazi gorena.

Ikastaroa eGelapi (<https://egelapi.ehu.eus/>) plataforman birtualean egingo da, eta elementu hauek izango ditu: unitate didaktikoak, gomendatutako irakurketak, bideoak, webguneetarako estekak, hitzaldiak, zuzeneko eztabaidak, eta jarduerak askotariko formatuetan; horrez gain, finantza etikoen zenbait gaitan sakontzeko material osagarria banatuko da.

Irakaskuntza plan hau honako atal hauetan dago egituratuta:

2. Gaitasunak	3. or.
3. Helburuak	3. or.
4. Edukiak	4. or.
5. Lan metodologia	4. or.
6. Laneko plana	5. or.
7. Ebaluazioa eta ziurtapena	6. or.
8. Egutegia	6. or.
9. Bibliografia	6. or.

Ikastaro hau zuzenduta dago finantzak etika, jasangarritasun eta elkartasunaren ikuspegitik ezagutu nahi dituzten ekonomia eta enpresaren arloko graduko eta graduondoko ikasleei. Dena dela, arloan interesa duten UPV/EHUko beste gradu batzuetako ikasleak ere ongietorriak izango dira.

2. Gaitasunak

Ikastarora amaitzean, espero dugu parte hartzaileek honako gaitasun hauek izatea:

1. Azken hiru hamarkadetan munduko ekonomiak izandako finantzarizazio prozesuaren gaineko ikuspegi bat izatea; haren kausak, haren mekanismoak eta oraingo krisi sakonetan izandako zeregina ezagutzea; baita finantza espekulazioaren eta zerga paradisuaren existentziaren zentzua ere.
2. Finantza etikoen zeregina baloratzea, berdintasuna eta elkartasuna bilatzen duten balio, printzipio eta portaera berrietan oinarritutako gizarte baten eraikuntzan.
3. Ezagutzak, argudioak eta tresnak edukitzea, herritartasun lokal eta globalaren bizi baldintzen eraldaketarekiko jarrera solidarioa eta konprometitua barneratzeko.
4. Jardunbide egokiak identifikatzea, nazioarteko finantza sektorean eta haren ingurune hurbilean.
5. Ezagutzea zein den emakumeen lekua finantzetan, eta identifikatzea oraindik ere egon dauden desparekotasunak.

3. Helburuak

Ikastarora diseinatuta dago hura gainditzeko dutenek ikaskuntza helburu hauek lor ditzaten:

1. Diruaren jatorria eta eboluzioa ezagutzea historian zehar, baita gaur egungo jardura ekonomikoan betetzen duen zeregina ere.
2. Sistema monetarioa eta dirua sortzeko mekanismoak ezagutzea, bai diru agintarienak, bai banku komertzialenak.
3. Banka etikoaren historia labur deskribatzea: jatorriak, sortzeko arrazoiak eta gaur egun arteko eboluzioa.
4. Finantza etikoen eta egungo finantzen arloan asko garatzen ari diren finantza jasangarrien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak hautematen jakitea.
5. Finantza etikoek bere helburuak lortzeko erabiltzen dituzten tresna nagusietako batzuk ezagutzea, baita haien ezaugarriak, funtzioak eta funtzionamendua ere.
6. Finantza etikoek eta akziodun kritikoek ekonomia modernoetan duten zeregina baloratzea, baita haien ekarpena ere, beren enpresetako inbertsio planen orientazio aukeretan.

7. Ekonomia feministak finantza etikoei egindako ekarpenak identifikatzea.

4. Edukiak

Ikastaroaren edukiak hiru modulu tematikoetan egituratzen dira, non edukiak honela dauden banatuta:

1. Taula. Ikastaroaren edukiak

1. Modulua.- Dirua, finantzak eta espekulazioa
1.1. Diruaren jatorria eta funtzioak 1.2. Sistema monetarioa eta diruaren sorrera 1.3. Finantzak: kontzeptua. Finantzen zeregina ekonomian. 1.4. Finantzak, espekulazioa eta zerga paradisuak 1.5. Genero desparekotasun ekonomikoak sistema kapitalistan.
2. Modulua.- Finantza etikoak eta jasagarriak
2.1. Finantza etikoen historia eta printzipioak. 2.2. Finantza jasagarriak. 2.3. Akziodun kritikoak. 2,4, Finantza etikoak, emakumeen ahalduntzerako tresna.
3. Modulua.- Finantza etikoen tresnak
3.1. Mikrofinantzak eta mikrokredituak 3.2. Bermeak eta abalak 3.3. Moneta osagarriak 3.4. Mikrofinantzaketa kolektiboa (crowdfunding) 3.5. Inpaktu inbertsioak 3.6. Beste ekimen batzuk 3.7. Ekonomia feminista eta solidarioaren zenbait ekimen eta esperientzia

5. Lan metodologia

Espero dugu "Finantza Etikoak: pertsonengan balioa jartzeko benetako aukera" ikastaroko ikasleek planteatutako jardueretan parte hartze aktiboa eta gogotsua izatea, bereziki landutako edukien eta azaldutako esperientzien gaineko gogoeta bultzatzeko diseinatu diren horietan; era berean, noizean behin, autoebaluazioa egin, eta jarduerak komunikatu beharko dituzte.

Ikastaroa hasteko, aurkezpen bideo bat jarriko da, non ikastaroaren ezaugarriak eta lan metodologia azaltzen baitira, baita laneko plan orientagarri bat ere. Bideoaren

ondoren, parte hartzaileak lehen moduluak lantzen hasiko dira, eta hurrengo asteetan, arian-arian, beste bi moduluak jarriko dira parte hartzaileen esku.

eGelapi plataformaren ikastaroaren lan ingurunean, hiru modulu tematikoak garatzeko elementu hauek jarriko dira: unitate didaktikoak, landutako edukiei buruzko testuak, ikus-entzunezko materiala, webguneetarako estekak, jarduerak, eta eztabaidarako espazioak (foroak eta ekitaldiak).

Ikastaroan eskainitako edukien gaineko jarrera gogoetatsu bat bultzatzeko, modulu bakoitzaren amaieran ariketa bat edo batzuk (testak eta eztabaida foroak) jarriko dira, parte hartzaileek egin ditzaten. Horrez gain, modulu bakoitzean zuzeneko hainbat hitzaldi eta eztabaida proposatuko dira bideokonferentziaz, dagokion moduluaren gai nagusian adituak diren pertsonekin. Bideokonferentzia horietan eGelapi plataforman sartutako *Webex* tresna erabiliko dugu.

6. Laneko plana

Edukiak **hiru modulutan** antolatuta daude (ikus 4. atala). Modulu bakoitzeko lan planak osagai hauek izango ditu:

1.- **Oinarri dokumentua** irakurtzea. Hori izango da modulu bakoitzerako **oinarrizko tresna**.

2.- **Esperientziak trukatzea**: Atal honetan baliabide eta esperientzien bilduma heterogeneo bat partekatu nahi dugu, bestelako ahots eta begiradei tokia egiteko. Jarrera irekiaz antolatu dugu, askotariko baliabideen inguruan. Batzuk didaktikoagoak dira, eta hain bidez berriz helduko diegu gogoetagai izan ditugun zenbait gauzari berriz, baina beste ikuspegi batetik. Beste baliabide batzuk, aldiz, esperientziari lotuagoak izango dira.

3.- **Proposatutako ataza bat edo gehiago egitea**, parte hartzaileek finantza etikoetan sakondu ahal izan dezaten eta gaitasun analitikoak eta ikuspegi kritikoa gara ditzaten, bai beren errealitatearen eta bai mundu mailako egoeren aurrean.

4.- **Zuzeneko aurkezpena eta eztabaida** (aurrez aurre edo bideokonferentziaz) moduluko gaian adituak diren pertsonen eskutik. Bideokonferentzia hauetarako **Webex tresna** erabiliko dugu, eGelapi-n txertatua.

5.- **Baliabide osagarriak** (aukerakoak). Irakurgaiak, ikus-entzunezko materialak eta Interneteko estekak proposatuko dira, nahi izanez gero modulu bakoitzean landutakoan sakontzeko.

Modulu bakoitzaren laneko plana zehaztuta dago bakoitzaren unitate didaktikoan, zeina hasieran jarriko baita ikasleen esku. Nolanahi ere, jarraian aurreratzen dugu:

Modulua	Egin beharreko lanak	% amaierako ebaluazioan
---------	----------------------	-------------------------

1. Dirua, finantzak eta espekulazioa.	1. LANA. "Dirua, finantzak eta espekulazioa" testa	% 15
	2. LANA. 1. moduluaren zuzeneko hitzaldia. 1. moduluko hitzaldiari buruzko gogoetalarana.	% 15
2. Finantza etikoak eta jasagarriak	3. LANA. "Finantza etikoak eta jasagarriak" testa.	% 15
	4. LANA. 2. moduluaren zuzeneko hitzaldia. 2. moduluko hitzaldiari buruzko gogoetalarana.	% 15
3. Finantza etikoen tresnak	5. LANA. "Finantza etikoen tresnak" testa.	% 15
	6. LANA. 3. moduluaren zuzeneko hitzaldia. 3. moduluko hitzaldiari buruzko gogoetalarana.	% 15
	7. LANA. Amaierako gogoeta.	% 10

7. Ebaluazioa eta ziurtapena

Ikastaro honetako hiru moduluetan planteatutako lanen bidez lortu nahi da parte hartzaileek finantza arloaren eta gizarte zuzenago eta solidarioago bat eraikitzearen artean dagoen harremana sakon ezagut dezaten, analisiak egiteko eta gauzak zalantzan jartzeko gaitasunak garatuta, bai beren errealitateetik bai maila globalean ematen diren egoeretatik abiatuta.

Ikastaroa gainditu eta dagokion ziurtagiria lortzeko, ikasleek ikastaroan proposatutako erantzun aukera askoko hiru testak (>5.0/10.0) gainditu beharko dituzte (bakoitza amaierako notaren % 15 izango da). Gainera, zuzeneko hitzaldietara asistentzia (hiru moduluetakoko bakoitza amaitzean programatuak) eta planteatzen diren zereginak nahitaez bete beharko dira (amaierako notaren % 15 emango da). Horrez gain, amaierako gogoeta lan bat egin beharko dute, nahitaezkoa izango dena eta amaierako notaren % 10en balioa izango duena.

Ikastaroa gainditzeko duten graduako ikasleek hautazko 1,5 ECTS kreditu baliokidetzea eskatu ahal izango dute. Akademia Antolakuntzako errektoreordearen 2012ko maiatzaren 21ean argitaratutako (EHAA, 119. zk., 2012ko ekainaren 19a) Erabakiaren bidez argitaratutako graduako ikasketetan kredituak transferitzeari eta onartzeari buruzko Arautegiaren 11.4 artikulua arabera, **hautazko kredituak** amortizatu daitezke, unibertsitateko errektoreordeak antolatutako prestakuntzako kultura jarduerak (ikastaroak, mintegiak, biltzarrak, etab.) egiteagatik. Jarduera horietarako honako baliokidetasun hau ezartzen da: 1 kreditu 25 orduko. Hortaz, UPV/EHUko ikasleek ikastaroaren amaieran igorritako ziurtagiria ikastegiko (Eskola edo Fakultatea) idazkaritzan aurkeztu ahal izango dute, horretarako ezarritako epeetan eta, dagozkion izapideak egin eta prezio publikoak ordaindu ondoren, kreditu horiek beren espedienteetara gehituko zaizkie.

8. Egutegia

Jarraian, gai eta atal bakoitzerako aurreikusitako denbora zehazten da, baita ikastaroaren data nagusiak ere (hasierako data ezartzean finkatuko dira).

Jarduera	Aurreikusitako denbora	Hasierako data	Amaierako data
Ikasturtearen hasiera		2023/02/13	
Ikastaroaren aurkezpena		2023/02/13	
1. modulua	12 ordu	2023/02/13	2023/02/27
1.1. Atala	3 ordu		
1.2 Atala	3 ordu		
1.3 Atala	3 ordu		
1.4 Atala	3 ordu		
2. modulua	9 ordu	2023/02/27	2023/03/10
2.1 Atala	3 ordu		
2.2. Atala	3 ordu		
2.3 Atala	3 ordu		
3. modulua	16,5 ordu	2023/03/10	2023/03/24
3.1 Atala	4,5 ordu		
3.2 Atala	4 ordu		
3.3 Atala	4 ordu		
3.4 Atala	4 ordu		
Ikastaroaren amaiera	2023/03/24		
Guztira	37,5 ordu.	1,5 ECTS kreditu	

9. Bibliografia

Cavallito, M.; Emanuele, I.; Meggiolar, M. (2016) *Las finanzas éticas y sostenibles en Europa. Primer Informe.* Finanzas Éticas. Eskuragarri hemen <https://finanzaseticas.net/wp-content/uploads/2018/12/1r-informe-cs.pdf>

Cavallito, Matteo; Emanuele, Isonio; Meggiolar, Mauro (2019) *Las finanzas éticas y sostenibles en Europa. Segundo Informe.* Finanzas Éticas. Eskuragarri hemen: <https://finanzaseticas.net/wp-content/uploads/2019/12/SEGUNDO-INFORME-CS-V.3.pdf>

De la Cruz, Cristina (2014). *Una lectura feminista sobre el carácter político y el poder emancipador de las finanzas éticas* en REAS Euskadi: "Sostenibilidad de la Vida. Aportaciones desde la Economía Solidaria, Feminista y Ecológica". Bilbao: Reas Euskadi, 80-95 or. Eskuragarri hemen: http://www.economiasolidaria.org/sostenibilidad_vida_libro

Economistas Sin Fronteras (2017). ***Inversiones de impacto***. Dossier N° 27. Eskuragarri hemen: <http://ecosfрон.org/wp-content/uploads/DOSSIERES-EsF-27-La-inversión-de-impacto-1-1.pdf>

Gutiérrez, Jorge; Unceta, Koldo (2015). ***Compatibilidad o conflicto entre objetivos sociales y financieros de las microfinanzas: Debates teóricos y evidencia empírica*** Revista Innovar. Edición Especial. Universidad Nacional de Colombia. Bogotá. 1. Lib.; 16. or. ISSN 2248-6968.- Español Eskuragarri hemen: <http://www.scielo.org.co/pdf/inno/v25nspe/v25nspea09.pdf>

Salama, Pierre (2010). ***Una crisis financiera estructural***. Revista Iconos 36. Flacso. Ecuador. Eskuragarri hemen: <http://200.41.82.22/bitstream/10469/1614/4/RFLACSO-I36-02-Salama.pdf> (9-18 or.)

Torres, Juan (2007). ***Diez ideas para entender la crisis financiera, sus causas, sus responsables y sus posibles soluciones***. Rebelión. Eskuragarri hemen: <http://www.accionculturalcristiana.org/html/revista/r73/73torr.pdf>

Universidad Nacional General Sarmiento (2007) ***Cartillas de Economía Social N° 1. Finanzas para la Economía Social. Buenos Aires***. (7-22 orrialdeak). Eskuragarri hemen: http://base.socioeco.org/docs/finanzas_pa_ra_la_economia_social_2008.pdf

Vidal, Pau; De la Peña Rodríguez, María; Sureda, María (2006). ***Diagnóstico sobre el interés del tercer sector y la economía social por una banca ética***. Documento de síntesis de la investigación. 09 Colección Papers de Investigación OTS. Eskuragarri hemen: http://observatoritercersector.org/pdf/publicacions/2006-07_Interes_banca_etica_cs.pdf